

# IKASTAROA: gazteentzako lana eta mugikortasuna EBn

**Bilbao,**

2012ko urriaren 15ean, 16an eta 17an

**Tokia:**  
Bilbao  
GEB. Uriortu kalea 11, behea

**Ordutegia:**  
09:00etatik 14:00etara

**Hizkuntza:**  
Ikastaroa gaztelaniaz emango da

**Izena emateko epea:**  
Irailaren 24tik urriaren 5era

**Izena emateko:**  
944 03 16 45  
gaztebehatokia@ej-gv.es  
www.gaztebehatokia.euskadi.net



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Gazteria Zuzendaritza  
**DEPARTAMENTO DE CULTURA**  
Dirección de Juventud



**Gazteen  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de la Juventud**



IKASTAROA:  
gazteentzako lana eta  
mugikortasuna  
EBn



Ikastaroaren helburua gazteen arloan, lan-orientazioan eta hezkuntzan lan egiten dutenentzako laguntza-tresna izatea da, gazteek Europar Batasunean dituzten enplegu eta mugikortasun aukeren berri eman dezaten. Horretarako, enplegua bilatzeko tresna berrietan, enplegu-gune berrietan eta Europar Batasuna osatzen duten herrialdeetako edozeinetan lan egiteko, hizkuntza bat ikasteko edo, besterik gabe, bidaiatzeko dauden aukeretan sakonduko da ikastaroan.

## helburuak

- › EBk gazteen enpleguari eta mugikortasunari buruz eskaintzen dituen aukera guztiak laburbiltzea eta tresna berean jasotzea.
- › Orientaziorako baliabideak erraztea eta mugikortasun-esperientzia batean parte hartu nahi duten gazteentzako aholku emateko gida bat ezartzea.
- › Europar Batasunak gazteen mugikortasunerako eskaintzen dituen aukerak zeintzuk diren eta nola funtzionatzen duten ezagutzera ematea.
- › Enplegua bilatzeko online tresnei buruzko informazioa ematea, bai eta enplegu-gune berriei buruzkoa ere.
- › Erakunde publikoek nahiz elkarte eta enpresa pribatuek eskaintzen dituzten baliabideak modu praktikoan ezagutzera ematea.

## metodologia

15 orduko ikastaroa, bosna orduko hiru saiotan banatua.

Hasieran edukiak teorikoagoak izango dira, web eta multimedia baliabideen bitartez landuak. Jarraian, EBn gazteei mugikortasun-aukerak eskaintzen dizkieten online baliabideak, sareak, erakundeak eta kolektiboak emango dira ezagutzera.

**Ikasle-kopurua: 30**

## hartzaileak

- › Gazteen arloko langileak (Gazte Informazioa, udalak, aldundiak, gazteen elkarteak eta beste erakunde batzuk).
- › Hezitzaileak.
- › Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeetako orientatzaileak.

IKASTAROA:  
gazteentzako lana eta  
mugikortasuna  
EBn



## egitaraua

1. Gazteen enplegua eta mugikortasuna.
2. 2.0 baliabideak enplegua bilatzeko.
3. Hezkuntza eta prestakuntza EBn.
4. Europako programak enplegurako eta mugikortasunerako.
5. Hizkuntzak ikastea.
6. Enplegua EBn.
7. Beste mugikortasun-modu batzuk.



## irakaslea

**Antonio Jesús Rodríguez Martínez**  
Andújarko Udalaren europar proiektuetako teknikaria eta Andújarko Udalaren eta Europako Batzordearen mendeko Europe Direct Andújar europar informazio zentroaren arduraduna.

## antolatzailea

GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA >  
Gazteria Zuzendaritza >  
Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila